

TXOKOLATEAREN HISTORIA



Oñatin txokolateak izan duen garrantzia ulertzeko, jakin behar da Oñati herri oso berezia izan dela. Inguruko herriak ez bezala, berandu arte (1845. urtera arte) jaurerri eta konderri izan zela. Horregatik, Espainiako gortearekin oso lotura berezia izan zuen eta pribilegio dezente zituen. Eta ondoko herriekin konparatuta Oñatiko herritar asko nobleak eta elizgizonak ziren. Ondorioz, monastegiak, jauregiak eta komentuak eraiki ziren, baita Euskal Herriko lehen unibertsitatea ere. Azken finean, Oñatin pribilegiozko bizimodua zuen jendeak, gorteko bizimoduarekin zerikusi gehiago zuena inguruko herrienarekin baino.

